

## Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

**5767**

176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, 29. artikuluan, euskararen erabileraren normalizazio-lanean laguntzeko harreman-organoa eratzea aurreikusten du, esandako legea ezarri eta gauzatzeari begira erakundeen ahaleginak aztertu, bideratu eta koordinatzeko, hain zuzen.

Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren bidez, aipatutako helbururako sortutako Euskararen Aholku Batzordearen araubidea aztertu zen.

Dekretu hori indargabetuta geratu zen Euskararen Aholku Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko uztailaren 11ko 132/2000 Dekretuaren bidez. Dekretu horrek hainbat moldaketa izan ditu Euskararen Aholku Batzordearen funtzionamendu-arauak egokitzeko euskararen erabileraren normalizazioak denboran zehar ekarri dituen beharren arabera.

Orain, berriro ere, beste aldaketa batzuk egiteko beharra sortu da. Egin beharreko moldaketen artean honako hau nabarmendu behar da: organo horri berariaz aitortzen zaio Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko jarraipen-lanak egiteko ardura; eta horrekin batera esleitu zaio euskara gizarte-arloetan sartzeko jarraibide berriak aztertu eta proposatzea eginkizuna. Gainerako aldaketak, berriz, Aholku Batzordearen funtzionamendua hobetzeko egunerazte eta doitze teknikoaren aldetik egindako moldaketa tak dira.

Aintzat hartuta beste aldaketa bat egin beharko litzatekeela, egokia iruditu zaigu dekretu honen bidez araubide horretan egin beharreko aldaketak egitea eta araubide hori eratzen duten xedapen guztiak, dekretuz onartutakoak, dekretu honetan bertan bateratzea.

Horren guztiaren ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Kultura sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 16an egindako bilkuran eztabaideatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Euskararen Aholku Batzordearen xedeña eta atxikitzea.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

**5767**

DECRETO 176/2007, de 16 de octubre, del Consejo Asesor del Euskera.

La Ley 10/1982 de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, en su artículo 29, contempla la existencia de un órgano de encuentro que tendrá por objeto estudiar, canalizar y coordinar los esfuerzos y las actividades de las diversas instituciones, en lo referente a la aplicación y desarrollo de esta Ley.

Por Decreto 156/1996 de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera, se procedió a revisar el marco jurídico del Consejo Asesor del Euskera, creado al objeto legal señalado.

Dicho Decreto fue derogado por Decreto 132/2000, de 11 de julio, de modificación y refundición de la normativa de organización y funcionamiento del Consejo Asesor del Euskera el cual ha sido objeto de sucesivas modificaciones dirigidas a adecuar su régimen de funcionamiento a las sucesivas necesidades que la dinámica de normalización del uso del euskera ha requerido en el tiempo.

Nuevamente se ha planteado la oportunidad de incorporar nuevas modificaciones, de entre las cuales ha de subrayarse, la necesidad de atribuir, expresamente a dicho órgano las labores de valoración del desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera, que fue aprobado por el Gobierno Vasco el 28 de julio de 1998, así como el análisis y propuesta de nuevas pautas para la incorporación del euskera en los diferentes ámbitos de la vida social. En cuanto a las demás, suponen una labor de actualización y ajuste técnico para la mejora de su funcionamiento.

Habida cuenta que, se estaría ante una nueva modificación se considera oportuno proceder mediante el presente a incorporar las nuevas modificaciones a dicho régimen, y a refundir el conjunto de disposiciones reguladoras del mismo, aprobadas por Decreto.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de octubre de 2007,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Naturaleza y adscripción del Consejo Asesor del Euskera.

1.– Euskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurrikusitako harreman-organoa izango da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko.

2.– Euskararen Aholku Batzordea Kultura Sailari atxikita egongo da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, baina bere egitura organikoan txertatu gabe.

**2. artikulua.**– Euskararen Aholku Batzordearen organoak.

Honako hauek dira Euskararen Aholku Batzordeak jarduteko izango dituen kide anitzeko organoak:

- Batzorde Osoa.
- Batzorde-atal Iraunkorra.
- Batzorde-atal bereziak.
- Batzorde-atal berezien batzorde iraunkorrak.

Kide bakarreko organoak honako hauek izango dira:

- Lehendakaria.
- Idazkaria.

**3. artikulua.**– Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren osaera.

1.– Honako hauek osatuko dute Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa:

a) Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

b) Lehendakariordea: Kultura sailburua.

c) Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

d) HABEko zuzendari nagusia.

e) Euskal Irrati Telebista erakundeko zuzendari nagusia edo hark izendatutako ordezkaria, erakunde horretako nahiz atxikita duen sozietate publikoren bateko zuzendari izaera izan beharko duela.

f) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak izendatutako ordezkari bat, gutxienez zuzendari mailakoa.

g) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatutako ordezkari bat, gutxienez zuzendari mailakoa.

h) IVAPeko zuzendari nagusia.

1.– El Consejo Asesor del Euskera se configura como el órgano de encuentro previsto en el artículo 29 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, para el estudio, canalización y coordinación de los esfuerzos y actividades de las diversas Instituciones, tanto públicas como privadas, implicadas en la tarea de la normalización lingüística.

2.– El Consejo Asesor del Euskera está adscrito al Departamento de Cultura a través de la Viceconsejería de Política Lingüística, sin integrarse en su estructura orgánica.

**Artículo 2.**– Órganos del Consejo Asesor del Euskera.

Los órganos colegiados de funcionamiento del Consejo Asesor del Euskera son:

- El Pleno.
- La Comisión Permanente.
- Las Comisiones Especiales.
- Las Comisiones Permanentes de las Comisiones Especiales.

Los órganos unipersonales del Consejo Asesor del Euskera son:

- El presidente o la presidenta.
- El secretario o la secretaria.

**Artículo 3.**– Composición del Pleno del Consejo Asesor del Euskera.

1.– El Pleno del Consejo Asesor del Euskera tiene la siguiente composición:

a) Presidencia: el o la Lehendakari del Gobierno Vasco.

b) Vicepresidencia: el Consejero o la Consejera de Cultura.

c) El Viceconsejero o la Viceconsejera de Política Lingüística.

d) El Director o la Directora General de HABE.

e) El Director o la Directora General del ente Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca, o persona con condición formal de directivo del Ente o de cualquiera de sus Sociedades Públicas dependientes que a tal efecto designe.

f) Un o una representante designado o designada por el Consejero o la Consejera de Hacienda y Administración Pública, con rango mínimo de director o directora.

g) Un o una representante designado o designada por el Consejero o la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, con rango mínimo de director o directora.

h) El Director o la Directora General del Instituto Vasco de Administración Pública.

i) Honako erakunde eta organismo hauek proposaturik izendatutako kideak:

1) Hiru foru-aldundietako ordezkari bana, gutxinez zuzendari mailakoak;

2) Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari bat;

3) Euskaltzaindiko ordezkari bat.

j) Gehienez ere berrogei kide, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatuak. Kultura sailburuak proposatuko ditu kideen kopurua eta zerrenda, eta euskararen hizkuntza-komunitatearen lurralteetako ordezkariak izateari begiratuko zaio.

k) Bost kide, Eusko Legebiltzarra proposaturik izendatuak.

l) Idazkaritza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zuzendarietako baten esku egongo da. Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko du idazkaria. Idazkariak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-ko zerbitzu teknikoak izango ditu eskura.

2.- Batzorde Osoaren bilkuretarra, eztabaidatzekoak diren gaietako adituak eraman ahal izango dira. Aditu horiek hitza izango dute, baina ez botorik.

**4. artikulua.**— Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideak izendatzea.

1.- Kultura sailburuak izendatuko ditu, Agindu baten bidez, 3.1 artikuluko e), f), g), i), j) eta k) idaztietan aipatzen diren kideak. Agindua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.- Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko berezko kide ez direnen kargualdia hiru urtekoa izango da; kargualdia berritu egin daiteke. Kargualdia amaitutakoan, Batzorde Osoko kide izaten jarraituko dute behin-behinean, harik eta Euskararen Aholku Batzorde berria izendatzen den arte.

3.- Baldin eta Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideen artean, 3.1 artikuluko e), f), g), i) eta k) idaztietan aipatzen direnen artean, karguren bat hutsik geratzen bada, jakinarazi egin beharko zaio kargu hori betetzeko kidea proposatu edo hautatu zuen erakunde edo organoari, beste kide bat proposatu edo hauta dezan geratzen den kargualdirako, hilabeteko epean.

**5. artikulua.**— Euskararen Aholku Batzordeko lehendakaria.

i) Los y las vocales designados o designadas a propuesta de las siguientes instituciones y organismos:

1) Un o una representante de cada una de las diputaciones forales, con rango mínimo de director o directora;

2) Un o una representante de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL);

3) Un o una representante de Euskaltzaindia.

j) Hasta un máximo de cuarenta vocales nombrados y nombradas de entre personalidades de reconocido prestigio en los diferentes ámbitos sectoriales que inciden en el proceso de normalización lingüística. El número y la relación de dichos y dichas vocales serán propuestos y propuestas por el Consejero o la Consejera de Cultura, procurándose la presencia de vocales procedentes de los distintos territorios de la comunidad lingüística vasca.

k) Cinco vocales nombrados y nombradas a propuesta del Parlamento Vasco.

l) La Secretaría recaerá sobre un o una de los o las directores o directoras de la Viceconsejería de Política Lingüística. El nombramiento lo realizará el Viceconsejero o la Viceconsejera de Política Lingüística. La Secretaría dispondrá de los servicios técnicos de la Viceconsejería de Política Lingüística.

2.- El Pleno podrá recabar la participación en sus sesiones, con voz pero sin voto, de personas especializadas en los temas que fueran objeto de tratamiento en las mismas.

**Artículo 4.**— Nombramiento de los y las vocales del Pleno del Consejo Asesor del Euskera.

1.- Los y las vocales a que se refieren los apartados e), f), g), i), j) y k) del artículo 3.1 serán nombrados y nombradas por Orden del Consejero o la Consejera de Cultura y publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.- La duración del mandato de los y las vocales no nativos del Pleno del Consejo Asesor del Euskera será de tres años renovables. Una vez que expire su mandato, seguirán formando parte del mismo de manera provisional hasta que se produzca la designación del nuevo Consejo Asesor del Euskera.

3.- Las vacantes que se produjeran entre los y las vocales del Pleno del Consejo Asesor a que se refieren los apartados e), f), g), i) y k) del artículo 3.1 serán puestas en conocimiento de la institución u órgano que haya formulado la propuesta o haya efectuado la designación, para que en el plazo de un mes proceda a proponer o designar nuevo o nueva vocal por el tiempo que reste del mandato del o de la vocal sustituido o sustituida.

**Artículo 5.**— El Presidente o la Presidenta del Consejo Asesor del Euskera.

1.– Aholku Batzordearen Batzorde Osoko lehendakariari dagokio, besteak beste:

- a) Euskararen Aholku Batzordearen ordezkari izatea.
- b) Bilkuretarako deia egitea, Idazkaritzaren bidez.
- c) Bilkuretako gai-zerrenda finkatzea.
- d) Bilkurei hasiera eta amaiera ematea.
- e) Bilkuretako buru izatea eta eztabaideak bideratzea.
- f) Erabakiak hartzeraoa berdinketarik bada, bere botoaz erabakitzea.

g) Bere sinadurarekin Euskararen Aholku Batzordearen aktak baimentzea.

h) Lehendakari izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2.– Aholku Batzordearen Batzorde Osoko lehendakariaren kargua hutsik geratuz gero, edo bera kanpoan nahiz gaixorik izanez gero, edo bestelako legezko arrazoik gertatzen bada, Kultura sailburuak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak edo azken horrek Euskararen Aholku Batzordeko kideen artean izendatutakoak ordezkatuko dute, hurrenkera horren arabera.

**6. artikulua.**– Euskararen Aholku Batzordeko idazkaria.

1.– Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkariari dagokio, besteak beste:

- a) Batzordeko bilkuretarra joatea. Hitz egiteko esku-bidea izango du, bai eta botoa emateko ere.
- b) Bilkuretako gai-zerrenda prestatu eta bideratzea, bai eta bilkuretan eztabaideatutu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa ere.
- c) Lehendakariaren aginduz, Batzordearen bilkuretarako deia egitea.
- d) Kideek Batzordeari egindako komunikazioak eta, beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak, edo bere ardurapean egon behar duten bestelako idazkiak jasotzea.
- e) Bilkuretako aktak idaztea eta baimentzea.

f) Onartutako akta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak egitea, lehendakariak aginduta eta oniritzia emanada.

g) Euskararen Aholku Batzordearen batzorde-atal bereziak koordinatzeko lanak burutzea.

h) Kide anitzeko organo bateko idazkari izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2.– Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkariaren kargua hutsik geratuz gero, edo bera kanpoan nahiz gaixorik izanez gero, edo bestelako legezko arrazoik gertatzen bada, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Hizkuntza Politikarako zuzendarien artean izendatutako batek ordezkatuko du.

1.– Corresponde al Presidente o la Presidenta del Pleno del Consejo Asesor, entre otras funciones:

- a) Representar al Consejo Asesor del Euskera.
- b) Convocar, a través de la Secretaría, sus sesiones.
- c) Fijar el orden día de las sesiones.
- d) Abrir y levantar sesiones.
- e) Presidir las sesiones y moderar el desarrollo de los debates.
- f) Decidir con su voto los empates que se puedan producir.
- g) Autorizar con su firma las actas del Consejo Asesor del Euskera.
- h) Las demás que le sean inherentes a su condición de Presidente/a.

2.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal el Presidente o la Presidenta del Pleno del Consejo Asesor del Euskera será sustituido o sustituida por el Consejero o la Consejera de Cultura, por el Viceconsejero o la Viceconsejera de Política Lingüística o por quien éste o ésta último o última delegue de entre los y las miembros del Pleno del Consejo Asesor del Euskera, por este orden.

**Artículo 6.**– El Secretario o la Secretaria del Consejo Asesor del Euskera.

1.– Al Secretario o la Secretaria del Consejo le corresponden entre otras las siguientes funciones:

- a) Asistir a las reuniones del Consejo con voz y voto.
- b) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones del Consejo, así como la documentación necesaria relativa a los asuntos que hayan de tratarse en las mismas.
- c) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Consejo por orden de la presidencia.
- d) Recibir los actos de comunicación de los miembros con el Consejo y, por tanto, las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquier otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.
- e) Redactar y autorizar las actas de las sesiones.
- f) Expedir, por orden de la presidencia y con su visto bueno, certificaciones de las actas, dictámenes y acuerdos aprobados.
- g) Las labores de coordinación de las Comisiones Especiales del Consejo Asesor del Euskera.
- h) Las demás funciones inherentes a la secretaría de un órgano colegiado.

2.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal el Secretario o la Secretaria del Pleno del Consejo Asesor del Euskera será sustituido o sustituida por la persona que designe el Viceconsejero o la Viceconsejera de Política Lingüística entre los directores y las directoras de la Viceconsejería de Política Lingüística.

**7. artikulua.**— Hona Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren egitekoak:

a) Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.

b) Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.

c) Hizkuntzari loturiko gaietan eskumena duten aginte publikoen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.

d) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari eta betetzeari buruzko txostenak egitea.

e) Batzorde-atal Iraunkorrik egingo duen ekintzen urteko oroitidazkia onartzea.

f) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak ekintzen urteko oroitidazkian txertatuko du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko ebaluazioa.

g) Batzorde-atal bereziek proposamenak eta txostenak eginez gero, horiek aztertzea.

h) Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

**8. artikulua.**— Batzorde-atal Iraunkorra.

1.— Batzorde-atal Iraunkorreko kide izango dira:

— Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Batzorde-atal Iraunkorreko lehendakari gisa.

— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkaria.

— Euskararen Aholku Batzordeko idazkaria.

— Batzorde-atal bereziako bakoitzeko kide bana, aldi berean Batzorde Osoko kide direla, Batzorde-atal Iraunkorreko lehendakariak izendaturik.

— Batzorde Osoak 3.1.i eta/edo 3.1.j artikuluan aurreikusitako kideen artean izendaturiko beste bost kide, euskararen hizkuntza-komunitatearen lurralteetan euskarak duen egoera eta erabilera ezagutzen dutelako eta arlo horrekin harremana dutelako izendatuak, hain zuzen.

2.— Batzorde-atal Iraunkorra baliozko eran eratuko bada, boto-eskubidedun kideen gehiengo osoak agertu beharko du bilkurara; Batzorde-atal Iraunkorreko lehendakariak ere nahitaez egon behar du, edo, hora kanpoan izanez gero, haren ordezkoak, eta idazkariak ere bai.

3.— Batzorde-atal Iraunkorrak kideen gehiengo soilauren aldeko botoa beharko du erabakiak hartzeko, bil-

**Artículo 7.**— Funciones del Pleno del Consejo Asesor del Euskera.

a) Estudiar y analizar, a instancias del Gobierno, cuantas cuestiones se refieran a la normalización lingüística en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Proponer al Gobierno y a las instituciones correspondientes la adopción de medidas adecuadas para la mejor aplicación de las disposiciones referentes al uso del Euskera.

c) Proponer medidas que aseguren la actuación coordinada de todos los poderes públicos con competencia en materia lingüística.

d) Informar sobre el desarrollo y cumplimiento del Plan General de Promoción del Uso del Euskera.

e) Aprobar la memoria anual de actividad elaborada por la Comisión Permanente.

f) El Pleno del Consejo Asesor del Euskera incluirá en la memoria anual de actividad la evaluación del desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera.

g) Analizar las propuestas y los informes que, en su caso, pudieran formular las Comisiones Especiales.

h) Cualquier otra función que le atribuyan las leyes o los reglamentos.

**Artículo 8.**— La Comisión Permanente.

1.— Formarán parte de la Comisión Permanente:

— El Viceconsejero o la Viceconsejera de Política Lingüística en calidad de Presidente o Presidenta de la Comisión.

— El o la representante del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

— El Secretario o la Secretaria del Consejo Asesor del Euskera.

— Un o una miembro de cada una de las Comisiones Especiales, que a su vez sean miembros del Pleno, designados y designadas por el presidente o la presidenta de la Comisión.

— Cinco miembros designados y designadas por el Pleno, de entre sus vocales previstos en el artículo 3.1.i y/o 3.1.j, por su conocimiento y contacto con la situación y uso del euskera en los distintos territorios de la comunidad lingüística vasca.

2.— La Comisión queda válidamente constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que debe encontrarse necesariamente el Presidente o la Presidenta de la Comisión Permanente, o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y el Secretario o Secretaria.

3.— La Comisión adopta sus acuerdos por mayoría simple de los y las miembros asistentes con derecho a

kurara agertu diren boto-eskubidedun kideena, alegia. Berdinketa gertatuz gero, Batzorde-atal Iraunkorreko lehendakariaren botoak ebazte-indarra izango du.

4.– Bilkuraren akta egin beharko da, eta, bertan, honako hauek jaso beharko dira nahitaez: parte hartu duten pertsonen izenak; noiz eta non egin den bilkura; zein izan diren eztabaidatutako gai nagusiak, nola egin den bozketa eta zer emaitza izan duen, eta zein erabaki hartu diren.

5.– Aktak idazkariaren sinadura beharko du, bai eta lehendakariaren oniritzia ere, eta bilkura horretan bertan edo hurrengoan onartuko da.

6.– Batzorde-atal Iraunkorra osatzen duten kideek beren boto partikularra jasoaraz dezakete aktan, bai erabaki osoari buruzkoa, bai erabakiaren alderdi jakin batzuei buruzkoa.

**9. artikulua.**– Hona Batzorde-atal Iraunkorraren egitekoak:

a) Euskararen Aholku Batzordearen gaien ohiko tramatazioa, Batzorde Osoaren bilerarik ez denean.

b) Aholku Batzordearen ekintzen urteko oroitidazkia egitea, Batzorde Osoak onar dezan.

c) Legeek, erregelamenduek edo Aholku Batzordearen Batzorde Osoak agindutako beste edozein gai.

**10. artikulua.**– Euskararen Aholku Batzordearen ohiko bilkurak eta bilkura bereziak.

1.– Aholku Batzordearen Batzorde Osoak urtean ohiko bilkura bat egingo du, gutxienez.

2.– Batzorde-atal Iraunkorrapk urtean bi ohiko bilerak egingo ditu, gutxienez.

3.– Gainera, hala Batzorde Osoak nola Batzorde-atal Iraunkorrapk, bilkura bereziak egin ditzakete lehendakariaren ekimenez edo organo horietako bakoitzaren kideen bi herenak eskatuta.

4.– Baldin eta Batzorde Osoaren edo Batzorde-atal Iraunkorraren kideen bi herenak bilkura berezirako deialdia egiteko eskatzen badute, idatziz egin beharko dute eskaria, eta bilkura berezi horretan aztertu nahi dituzten gaien proposamen arrazoitua agertu beharko da idazki horretan. Eskaera horrela egiten bada, lehendakariak hamabost egun izango ditu eskaera jasoz gerotzik, bilkura berezirako deialdia egiteko. Deialdiaren gai-zerrendan nahitaez sartu beharko dira eskaeraen zehazten ziren gaiak, eta lehendakariak gai gehiago ere sar ditzake.

5.– Eguneko gai-zerrendarekin batera, bilkuretako aztergaien inguruau beharrezkoa den dokumentazio guztia bidaliko da.

**11. artikulua.**– Deialdiak eta akordioak.

1.– Batzorde Osoa baliozko eran eratuko bada, boto-eskubidedun kideen gehiengo osoa agertu beharko da bilkurara lehenengo deialdian; quorum nahikorik ez

voto. En caso de empate decide el voto del Presidente o la Presidenta de la Comisión.

4.– De cada sesión se levanta acta que contendrá la indicación de las personas que hayan intervenido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos.

5.– Las actas son firmadas por el Secretario o la Secretaria con el visto bueno de la Presidencia, y se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

6.– Las personas miembros de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares, ya sea a la totalidad del acuerdo, ya sea a cuestiones puntuales del mismo.

**Artículo 9.**– Funciones de la Comisión Permanente.

a) La tramitación ordinaria de los asuntos del Consejo Asesor del Euskera cuando no está reunido el Pleno.

b) Elaborar, para su ulterior aprobación por el Pleno, la memoria anual de actividad del Consejo Asesor.

c) Cualquier otro asunto que le sea encomendado por las Leyes, Reglamentos o por el Pleno del Consejo Asesor.

**Artículo 10.**– Sesiones ordinarias y extraordinarias del Consejo Asesor del Euskera.

1.– El Pleno del Consejo Asesor ha de celebrar, al menos, una sesión ordinaria al año.

2.– La Comisión Permanente ha de celebrar, al menos, dos sesiones ordinarias al año.

3.– Además tanto el Pleno como la Comisión Permanente pueden celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes.

4.– La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias a petición de dos tercios de los y las integrantes del Pleno o de la Comisión Permanente se tiene que realizar por escrito y ha de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

5.– Junto con el orden del día se remitirá la documentación necesaria relativa a los asuntos que hayan de tratarse en las mismas.

**Artículo 11.**– Convocatorias y acuerdos.

1.– El Pleno quedará válidamente constituido cuando concurran en primera convocatoria la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto. Si no existie-

badago, Batzorde Osoa bigarren deialdian eratu ahal izango da, beti ere, boto-eskubidea duten kideen herein gutxienez bertan egonez gero.

Edonola ere, lehendakariak eta idazkariak, edo haien ordezkoek, nahitaez egon beharko dute.

2.– Batzorde Osoak gehiengo soilaren aldeko botoarekin hartuko ditu erabakiak, bilkurara agertu diren boto-eskubidedun kideen gehiengo soilaren bidez, alegia. Berdinketa izanez gero, lehendakariaren botoak ebatzikoa du.

3.– Bilkuraren akta egin beharko da, eta, bertan, honako hauek jaso beharko dira, nahitaez: parte hartu duten pertsonen izenak; noiz eta non egin den bilkura; zeintzuk izan diren eztaba idatutako gai nagusiak; non la egin den bozketa, zer emaitza izan duen eta zein erabaki hartu diren.

4.– Aktak idazkariaren sinadura beharko du, bai eta lehendakariaren oniritzia ere, eta bilkura horretan bertan edo hurrengoan onartuko da.

5.– Batzorde Osoa osatzen duten kideek beren boto partikularra jasoaraz dezakete aktan, bai erabaki osoari buruzkoa, bai erabakiaren alderdi jakin batzuei buruzkoa.

#### *12. artikulua.– Batzorde-atal bereziak.*

1.– Aholku Batzordearen Batzorde Osoak edo Kultura sailburuak batzorde-atal bereziak sortzea erabaki dezakete gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko. Batzorde Osoaren Erabakia edo Kultura sailburuaren Agindua beharko da horretarako.

Batzorde-atal bereziak iraunkorrak izan daitezke, eta eratzeko Erabakian edo Aginduan jasotakoarekin bat etorri zardungo dute.

2.– Batzorde-atal berezien egiteko orokorrak izango dira: Batzorde Osoari eta Batzorde-atal Iraunkorri laguntzea beren eginkizunetan; Euskararen Aholku Batzordeak eskatutako oinarrizko azterlanak egitea; batzorde-atal berezia sortzeko onartutako Ebazpen edo Aginduan zehazten diren azterlan eta txostenak egitea.

3.– Batzorde-atal berezien jarduketa Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren orientazio eta jarraibideei lotuko zaie, edo Aginduan jasotakoei; jarduketa horri buruz eskatzen dizkieten argibide guztiak eman beharko dizkiete batzorde-atal bereziek Batzorde Osoari.

